

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
58n. ZENBAKIA
URRILLA
— 1982 —




OÑATE'KO IKASTETXE NAGUSIA

ANTXIÑAKO
EUSKAL-IKASLEEN
GOMUTAKIA

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zenue nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

ERRIGINTZA EGOSTEN

Ba-dator auteskundea eta barrero be emen gagoz gu Madrid'era bagira!

Politikariak diñoe, eta egia izango da, errigintza egosten dan lekuan egon bear dogula euskaldunak. Orduan, Madrid'en egosten ba'da Madrid'en eta Gasteiz'en egosten ba'da Gasteiz'en. Eta oraingo onetan Madrid'en egosten da, orregaitik goaz Madrid'era.

* * *

Baiña euskaldunai kondaireak asko irakasten dausku edo, obeto esateko, irakatsi bear leuskigu. Zori txarrez gitxi gara Euskalerrriaren kondairea zeaztasun apur bategaz ezagutzen dogun euskaldunok, eta orregaitik ez doguz artzen «andereño» onek irakasten dauskuzanak.

Kondairan argi agertzen da, Paris'ek naiz Madrid'ek beti arantza tiratzen dabela. Eta zer egingo dabe ba! Gau gara, jokabide ori onartzen dogulako zurtasun gitxikoak. Sarritan gure elburua zein dan aitzu egiten jakula esan lei.

* * *

Kondairearen asieran ez egoan inguru oneitan laterri aundirik, erri txikiak eta banatuak baiño, eta guk ez genduan zomatzen laterria sortzeko bear-izanik. Bitartean, iparraldean eta egoaldean, laterria sortzeko jokabide ori bizi-bizi egoan eta laterri aundia sortzerakoan Euskalerrria be gai bearrezko lez ikusten eben. Eta or asi zan geroago ta biziago dagoan burrukea, gutzat ondamentia ekarren jokoia.

Jaunen ezkontzea zala, eskualdeetako jauntxuen guraria zala, batera naiz bestera Madrid'ek eta Paris'ek laterri sendoak sortzeko Euskalerrria eurakandu nai eben. Eta lortu be bai. Gu, errukarriok, euren eskue-tara jausi giñan itxaropentsu. Eta or gagoz gaur be.

* * *

Orain asi gara, gure kondairako eskubide zarrak eta askatasuna gogoratuta, lengora biurtu gurean, Dabid txikia Goliat aundi bien aurka burrukan. Izkilluakaz batzun ustez, alkar-izketaz beste batzun gurariz.

Noizbeinka zerbait lortzen dala dirudi eta poztu egiten gara. Baiña Paris'ek ez dau ezer emoten, eska-tu be ez jako geiago egiten, eta Madrid'ek emoten dauan apurra negarrez emoten dau eta gaur emoten daua-na biar kendu egin gura dau. LOAPA-arazoa ez da besterik, Madrid'en betiko izakerea baiño.

* * *

Aldakuntzetan jarten dogu itxaropena eta UCD baiño PSOE ohea izango dala esaten dabentak be ba-daukaguz. Baiña ez da zertan larregi poztu. Alderdi bi orreik gauza baten dira bardiñak: Gutzat biak dira Madrid, biak dira España eta biak dauke gure arazpeten antzeko jokabidea. Beti euren alde.

Ez uste izan komunistak, angoak naiz emengoak, obeak izango diranik. Eritxien arazoa baiño geiago kromosomena ete dan nago, edo beintzak txikitatik artu dan eziketaren ondorena.

Noiz izango ete gara benetako burujabe? Noiz izango ete dogu geure erabagiak geuk artzeko beneta-ko eskubidea?

* * *

Politikea edo errigintza «al danaren ekintza» dala esaten dabe-ta, Madrid'eko joko oneitara sartu bear-ko dogu ba. Ainbat dira joan dan joko-aldian andik ekarri doguzan eskubideak eta ea aurrerantzean zori obeaz oinkada barriak emoten doguzan egiteko daukagun bide luze onetan.

Eta gero, urrengo bertoko auteskundearen zain. Onek garrantzi geiago edo aundiagoa izan daike, nekatu-eziñak ez diran gure jaurlariai ordezkari egokiak ipiñi dagioeguzan.

JAZORIKOAK

Azken-urteotan, «los euskaldun berri» izenekoak esamesa galantak sortzen diardue, Bizkaia'n, erri guztiaren barregarri izatera eltzeraiño. Emen, eredugarritzat, iru jazopen (eta beste bat geigarritzat):

Il batzuk dirala, ikastolako andereño bat andrazkoen ule-moztegi edo pelukeria batera joan zan, bere burua apaintzera (buru-barrua ezin apaindu). Asten da an egozanakaz berbetan, eta areitariko batek ba-diñotso:

—Zuk ule ederra ta ona daukazu; zegaitik ez dozu ulea zeuk konpontzen?

Eta andereñoak, buruari eragiñaz, auxe diño:

—Ail, ni inpotentea naiz, inpotentea naiz!

An egozan andrazkoen barre-santzoak Anboto'ko tontorrean entzun ziran, ainbaten.

—Zergatik parre oiek? —itauntzen dau andereñoak.

Orduan eta barre-algara gogorragoak, Anboto'n larrean ziar-duen beorrai be dantzan eragite-raiño, urrean.

Eta ango batek andereñoari:

—Inpotentea, erderaz, batez be seiñik argitara ezin ekarri daike-na dalako, eta euskerazko berbea be ez dalako.

Eta nik orain: Zelan irakatsiko ete-dautse euskerea andereño orrek ikastolako bere umeai?

Eta beste ezbai bat be ba-dator-ki burura: Andereño orrek, bera inpotente ba'da, zelan irakatsiko ete-dautse bere ikasleai «potente» izaten? Zelan ez dakit, baiña andereño ori «el batúa» irakasten dabenetarikoa da, «hiztegi moderno» darabilena; ortik inpotentea izatea, antza. Infelize donzella!

* * *

Ona emen ikastolako andereño batek ume baten gurasoai idatzitako oarra euskera «puruan»:

«Matematikako ebaluaketa ez

dit ondo egin. Ez dakit zer pasatuko zitzaion. Egun hortan despisatuta ibili zela dirudi.»

Orrexek bai dirala «terminachos» ezin esan alakoak!, A. Villasante'k esango leukenez.

Gurasoak, euskaldun bizkaitar utsak, ez eben tautik be ulertu, jakia: baserritar ez-ikasiak dira erdal-literaturan!

* * *

Beste jazoriko au be ez da atzean geratzen:

Txirrundulari-ariñeketa bat zala-ta, leengo batez Elorrio'ra joan nintzan. Eta lasterketa amaitzen zan tokian, oial aundi bat ikusi neban, bide-zabaleko ertz batetik besteraiño ipiñita. Ba-dakizue zer iñoan oialak, izki aundiz idatzita? Arritu zaitze:

HILMUGA (H ta guzti).

An geratu nintzan, bildur-ikaraz beterik, leenen elduko zan txirrundulariaren bat-bateko eriotza ikusteko asmoz. Sartu ziran, ba, txirrundulariak, eta, zorionez, bat bere be ez zan ilda geratu hilmugan.

Bereala, lasterketa-eratzailleakana jo neban, hilmuga negargarri arek zer esan gura eban jakitera. Areitariko batek be ez ekian zeatz-zeatz agiri aren esangurea, guztiak umetarik euskaldunak ziranarren be.

An aurkitu neban, orraitaiño, abade ezagun bat, eta berari itandu neutsan. Aurpegia be gorri-gorri egin yakon, lotsaren-lotsaz.

—Ez da hilmuga, adiskide —esan eustan abadeak barrezka—, euskera - erdera - batuko hilmuga baiño, laboratoriko «terminacho» barria.

Ori entzunaz, zabal-zabal egin yatan barrua, baiña biotz-itun biurtu nintzan etxera. Ikustekorik be!

* * *

Geigarritzat, beste au:

Urtero lez, aurten be, San Jose

egunean (eta ez «San Jose egunez», leengo asteko «San Jose egunean» baiño (onetzaz beste egun batez jardungo dogu), Euskalerrri'ko iru Elizbarrutietako Misiñoen alde egiteko eguna ospatu dogu (ea laster «Euskalerrri'ko Elizbarrutietako Misiñoak» esaten dogun). Ori dala-ta —«galeria»-ra begira—, zabalkunde-orri bat bialdu eben Bizkai'ko elizetara, urrengo au iñoala: «Banatzea ez da emate hutsa» (zapaltzaille barriak aurrean).

Eta or, ba: abadeari ezer esan bagarik, norbaitek elizako atean ipiñi eban.

Ain zuzen be, andik iru gazte igarotea jazo zan, abadea orriari begira egoala. Eta gazte batek abadeari.

—Oraingotan, H-a be sartu dozue, ba; eskatzeko danean... edozer.

—Amaiketan da Mezea; etorri nai ba'dozue... —abadeak.

—Ez, ez dogu orretarako astirik. Agur —izan zan arein erantzuna.

Gerotxoago, beste gizonzko bat etorri zan (Ebanjelioko lebitarraren antzekoa).

—Zer, zu be H-zale biurtu zara? —itandu eutsan abadeari—. Iguiña emoten daust ezaugarri orrek. Kaleko elizara noa. Agur.

Geroxeago —«gerotxoago» baiño obeto dago egon—, gizon eldu bat etorri zan. Eta, orriari begiratu bat eginda gero, abadeari auxe esan eutsan:

—Enel, orri onek atzo H bat eukan, eta orain ez dauko. Nok kendu ete-dautso ganora bako letra ori?

—Neuk kendu daustat, ba, oraintxe berton —erantzun eutsan abadeak—. Elizara ez datozenentzat alperrekoa dala konturatu

(3n'ean jarraitzen dau)

AZTERKETARAKO

ANTON GUZURRETXE

(A. Zubikarai)

AZTERTU-BEARRA

Euskereak, gaur egun bizi dauan, iriotza mugarte daroan larrialdia, gauza nabaria da. Euskal elertiarena, ez da txikiago; gaur arte bizitasun andirik euki ez ba dau, gaur, txikiagoak ez diran beste korapillo eta eztabaidetan sartuta dago eta. Euskal elertiak bizi dituan prolemetatik garrantzitsuenetarikoa, kritikarik eza da. Gauza jakiña da idazleak daukeen kritikearen bearra euren lanak berriakurri eta jokerak zuzendu, bideratu, edo-ta baieztatzeko. Irakurleok be, sarritan kritika lanak bat eskuratu edo erosi orduko. Au onela izanik, uste izaten dana baño geiago epeltzen ditu irakurle eta idazleek kritikakik ez onek. Arek liburuak erosi eta irakurteko, eta onek idaztiak obetotuten aalegintzeko.

Euskal olertian orrela ba da, zer esanik be ez dago gura euskalkian, azken aldiotan ain bastertuta dagoan gure Bizkaiera onetan, zer izango danari buruz.

Orrela ba, baimenduena izan ez arren, eta lan obeagoak argitaratzen ez diran bitartean, Bizkaitar irakurle eta idazleei laguntza apur bat eskeintzera ausartzen nez oraingo onetan. Bearbada, ausartze lar izango da batzuen ustez, baña nire elburua ez da andi gura-koa. Idazti au irakurteak, berton aztertzen dan eleberria irakurtera norbait eragiten ba dau, betetu da osoan nere elburua.

* * *

ZUBIKARAI

Ez dot uste idazle onen aurkezpanaren bearrizana dagoanik,

oso ezaguna da, ezagunik ba dago, bizkaierazko elerti munduan eta. Nork ez ditu irakurri bein baño izan ez arren, aren, DEIA n ia egunero argitaratzen diran idaztiak? edo sariketan batera aurkeztutako aren idazlanen bat? Ori ta guzti be, zer edo zer esango dogu Zubikarairen bizitza eta lanari buruz. Ondarroan jaiio 1914.urtean. Jaiozleku onek, zer ikusi andia dauka bere idatz eginkizunetan, erabilten dituan gaietetik ugariena, itsasoa, eta itsastarrak osotzen dabena bai da, eta bere izkuntzan Ondarruko jokera batzuk igarten bai dira. Bestalde «Itxasertz» eta «Ondarubi» berak erabillitako izenordetariko batzuk be Ondarrurantz begira dagoz. Elertiko arlorik geienetan ibilli da lanean.

Gaztetarik asi 1937.urtean sortutako «Eguna» aldizkariaren zuzendari ordezkio lez, gero, euskal antzerkia bizkortuteko asmotan ainbat lan egin ondoren, olertia be landu, gaurago eleberri, ipuin eta kazetaritzaren munduan, ekiñean jarraitzeko. Orain ikusiko dogun idazlana, eleberri bat da. Jakiña danez, eleberria, jenerorik txiroenatarikoa da euskal elertian, orregaitik, geiago barik, txalogarria da berez Zubikaraiek euskal eleberriaren (batez be bizkaierazkoaren) alde, azken denboraldiran egiten diarduan lana. Asko dira izenburu eta altzatutako sariak: Bale denporak, Lañoak Mundaka'n, Mon-Daka, Esan eta esango, Ira usaña...

«Anton Guzurretxe» be, 1979.urteko Txomin Agirre saria irabazitakoa da.

* * *

ELEBERRIA

Lenen aldiko urreratze baten, eta kasu onetan egin oi dan legez, mami eta azalaren arteko bereizketea egingo dogu, kontatzen dana eta kontatze orretarako aribilli diran bideen artekoa alegia.

* * *

ADIERAZIA

Gai nagusi bi bereiztuko neukez nik «Anton Guzurretxe»n. Norkien eginkizun eta gora beerrak osotzen daberen egilleak asmatutako ari, edo trama, alde baten, eta gizaldi onen asieran Ondarruko kala, etxe, eta gizadi artean ikusi eta arnasatzen ziran oitura, bizitza eta ingurua bestean.

* * *

ARIA

Argumentoa gitxi gora beera auxe da. Anton, bere gazte aroan inork nundik ez ekiala, Ondarrura

JAZORIKOAK

(2n^oetik dator)

naz; eliztarrentzat, barriz, kaltegarria. Aiztoaz kendu dot oraintxe, orri guztia ez kentzearren. («Hay que mojarse» be egin bear da).

Edozelan be H dala edo ez dala, aurten igaz baiño 4.110 peseta gutxiago batu dira gure elizan.

Egia esan, zabalkunde-orriak aurten H ta guzti etorri ezker, abade batzuek igaz baiño geiago batuko zala uste izan dabe urtean (cosas veredes, edo argiango ulertzeko, maiora videbitis). Geiago batu ba'da, barriz, askoz obeto; baiña ez H-zaleak geiago emongo ebelako, kalean ez da orretarako diru-batzerik egiten-eta. Ala bai?

MUGARRA

etorri eta arrantzan asitako mutila, Petraren estatuan (Guzurretxen) geratzen da. Ezizena be, andik datorkio. Alditxu bat orrela igaro ondoren, zorren estutasunak dirala eta, Petra estatua itxi-bearrean aurkitzen danean, bere etxean artzen dau Anton, onen itsasorateak sortzen dituan soldata erdien trukean.

Orrela dagozala, Galiziatik etorri dan Rosiña izeneko neska bat agertzen da errian, Petra Burgoa non aurkitu eikean-ka. Aren etxera eltzen danean, bere estatuan sarri egon oi zan lapiko konponzaille baten alabea dala agertzen dautso, eta aren esanei jarraituz bere (Petraren) alabea dala esan be bai. Ori, ezin leikeala izan-ka ordu batzuk burutik eraginda igaro ondoren, laster baten gaisotuten da Petra, eta il, bere etxe eta ia ondasun guztiak Antoneri itxiaz. Arrezkero, laster baten asten da Rosiña jo ta ke bere sorburuko illunak argituteko aalegiñetan, Petrak bere azken naian, ez dau arenganako amatasunik aitortu eta. Antoneri be, ume aroa igarotako baserrira joatea otuten jako, bere gurasoen egoerea ikusi ondoren, laguntza bearrean igarri ezkerro bere eskuetan egoana eskeintzeko. Baserrirantz joiala, bidean aurkitzen dauan baserritar batek, bere gurasoak ilda dagozala diñotso. Au jakiñik elizarantz joten dau bere nortasun agiriak arteztuteko asmotan, eta entzun be bai, abadearen aotik, parrokiko liburuetan ekarrenari jarraituz, ez zala ildako baserritarren benetako semea, semetzakotzat artua baño. Emendik eta eleberriaren azkenerarteko bitartea euren sorrerea argituteko, Rosiña eta Antonen eginizunak osotuten dabe. Zubikarai beraren beste lan baten, alegia, Mon-Dakan jasotzen dan legez, Filiaziño ezezagunari dagokiozan kezka, illuntasun eta gora beerak dira korapilloko elementurik garrantzitsuenak.

* * *

GAI BARDIÑA TA ADUA

Bear ba da gai bardiña eleberri baten baiño geiagotan tramako mami lez erabiltea, gauza kritikagarri bat izango da, idazle bategan irudikagarria ez dan jokera bat. Beste alde batetik, gai au, ez dau nire ustez adu onez agertzen, ots, ez dau nobela batek irakurle bategan sortu bear dauan tentsiño, adierapen, eta amaiearearen jakin gurea lortzen. Eleberriaren tramako punturik tentsiñotsuenak, ez dira gauza irakurle oartu bat zuritu edo siñistuta itxiteko, ez dira bear dan aña siñist-arazleak. Ona emen adibide bat edo beste:

Petraren eliz liburuan Rosiñak aurkitzen dauan atze aldean Arturoren eskuz idatzita bere izena dakarren estanpea (77.o) ez da gauza naikoa, frututzat ume bat emon daben gizon eta andre batzuen artu emonak frogatzeko. Ez eta bide orretan irakurle oartu bategan benetako itxaro-urduri bat lortzeko. Orregaitik narradoreak berez edo Rosiñaren bitartez, egikerak berez lortzen ez daben eskuzko (artificial) tentsiño malla bat nai dau lortu:

Berez.—«Arnas zabala zan ori bere asmoentzat. Petra eta bere aitaren arteko artu emonen agiri battegaz jabetzen zan (78.o)». Ots, goian aipatu doguzan artu emon bereziak, ganerakoak, normalak dira ugazaba eta ostatukariaren artean eta.

Rosiñaren bitartez.—«Ez dago ezpairik Anton. Au ikusita ez zallantzarik euki. Argi dago dana» (80.o.)

Beste onen antzeko gauza bat jazotzen da, Arturok Rosiñari bere amatzaz emondako misterioitsuak izan nai daben barriakaz:

«Andik (Petrarenetik) baño urreago ez dozu beste iñun billatuko zure ama».

Ez dirala naiko Rosiñak tajututen dauan masamorrea zertzeko. Oneri jarraituz, ez da gauza arriagarria, Rosiñaren ekintza eta joke-

rak, baten baiño geiagotan, pertsona eldu batenak ez oiruditzea. Onen arrazoia argia da. Narradoreak, daukeena baiño mami eta esan gura geiago nai dautse emon tramako jazoera eta eginkizunetarikoz batzuei.

Beste alde batetik, idazlanean zear alkarren artean usterrak diran datu batzuk aurkitzen doguz, eta onek zera adierazten emoten dausku, ez dala idazlana bear izan dan beste jabon eta biribildu.E.baterako:

Eleberriaren asieran, Antoneri buruz emoten jakuzan barrien artean, «Gogorra... garratza... berbetan sikua... borondatez ixil zalea (9.o.) zala diñosku narradoreak, baiña a zelako ustekabea, Antonen mundu eta ekintzetan sartu, aren aurrean geure burua jarri, eta aurkezpeneko «tipo»an sartzen ez dan Anton bategaz aurkitzen garanean!! Beste Anton bat dala dirudi; jardunaldi, alkar izketa eta autu askotan, parte artzen ikusten bai dogu, eta an or emen izan ezik iñungo gogor ez garraztasunik igarten ez bai jako.

Antonegaz nobela guztia igaro eta gero, nik, neuk ez neukez aretzaz esango, narradoreak aurkezpena egitean esaten dituanak.

Rosiñaren urteekaz antzeko zer edo zer jazotzen da. Lenengo, 22 urte dituala agertzen da (48.o.). Gero, 30tik gora dituala adierazten emoten jaku (178.o.) Antonek baiño bi edo iru gutxiago eukazala agertzen bai da, eta Antonek 34 bai daukaz. Azkenerantz, bere 22 urteak agertzen dira barriro. «Lapsus» bat seguru antzean.

Beste baten, narradorea bera be alkar lotu eziñagaz oartu eta azalpen bat egin bearrean aurkitzen da. Bai eta egin be:

Anton eta Rosiñaren arteko alkar izketa au: [Liburuen bat ba daukazu? / Irakurten ez dakit. Zuk be ez / Ez. Egia. Baña ez daukazu? / Zetarako? / Ikusteko], irakurri eta gero (75.o.) beste esaldiokaz aurkitzen gara, Rosi-

ñak liburua artu eta barruan aurkitutako estanpa bat aztertzen asten danean: «Botafumeiro andi bat Santiago'ren aurrean, alderdi baten. Eta atzean, beste geiagoko barik, izan [sic] bat: Arturo Carreiola.

Goitik berako arradak erdi gai-xotu eban Rosiña (77.—78.o.).

Bapatean dator itauna, ez dakiala irakurten eta ikusteko baiño ez dauala gura izan ezker, zelan da gauza bere aita Arturoren ize-na irakurteko? Narradorea konturatu da ordurako alkartu eziñ onegaz, eta laster baten abiatzen da argi apur bat emoten: «Ez ekian irakurten nekez baiño letraka baiño» (78.o.).

* * *

BIGARREN GAIA

Eleberraren bigarren gai nagusia, gizaldi onen asierako Ondarru da, Orduko bizitza eta biztanleen izaeraren izpillu garbia dogu idazlan au eta. Orrela, esate baterako, Guzurretxera etorri oi ziran erbestekoak azaltzean, gure errietan ain sarritan ikusten ziran kanpotar gizadi mota guztiak dakarskuz; Erri arraňak (20.o.), Paragueroak eta pipermiňak, trapu zaarrak, pita zaltzailleak, jai andienetakoak...

Idazlanaren aparaterik andiena onetan datza nere ustez, Aldi aretako Ondarruko giroan irakurleari une batzuk pasatu erazoteko, egillearen lanaren maisutasunean. Lenengoko gaian aurkitu daitekezan utsetan galtzen dauana, bigarren onetan nabari diran edertasun, zintzotasun eta seriotasunean irabazten dau idazlanak.

Bestalde, bigarren auxe dala esango neuke nik eleberriko gairik nagusia, bere mugei ganez eginda, lenengokoa be bere sabelean sartzen dauan bigarren au; trama interesgarri bat baiño oitura eta giro batzuen lauki bat egitea izan dala bai dirudi, egillearen elburua lan au idazterakoan. Orrela, tra-

mako elementu guztiak, euren leku berezia aurkitzen dabe lauki orretan, eta alde batera, arnasa barri bat artu, dimensiño barri bat lortu. Idaztiaren ari eta norkiak, oituren lauki orreri batasun bat emoteko artu diran atxakiak, biurtzen jakuz, eurak berez daukeen balorea, geiagotuz.

* * *

TX. AGIRRE'REN ANTZA

Ukatu eziñezkoa da onetan, Txomin Agirre eta Zubikarainen idaztien alkarren antza. (Ez bardintasuna). «Anton Guzurretzen», bide desbardiñetatik, ori bai, baña «Kresala»-n legez, gizaldi onen asierako Ondarruko erriaren leku-ko dan agiri bat aurkitzen dogu. Orrela ba, errealista lez zelakotu daikegu lan au, ingurua bat dan legez azaltzea bai da lanaren ardiesterik lortuena. Bestalde, jakiña danez, XIX.gizaldian Erromantizismoaren aurka sortutako jokera batek artu eban errealista izen ori. Jokera orretako elertian aurkitu oi ziran elementuetariko batzuk, igarri daitekez ikusten gagozan lanean, be, asko izan ez arren. Orrela, guraso ezezagundun umearen irudia ez da noiz beingoena errealisten nobeletan. Ez eta, umearo larri bat igaro dauan pertsonearna. Argi emollea da onetan, 167.o. Antonen umearoatzaz azaltzen jakuna, edo ta geroago, Antonek berak, gai bardiña esaten dauan au:

«Nik Angiozar'en ikazgiñan ez neban ikasi baiña negar egiten bai».

Oituren lauki onetan, gailendugarria da nere ustez, noiz beinka agertzen jakuzan «disgresiñoak», sarritan etnografi edo edesti lan baten aurrean gagozala uste erasoten dauskuen, esaldi mordoak. Ona emen batzuk:

«Orduan, arraňagaz gertatzen zan txalopeak, edozenbat laguneri emoten eutsen zapi bete arrain etxerako. Oiturazko zan. Gaur

batek, biar besteak, zelan gerta ala emon» (18.o.).

«Txaloparik geienak ildakoen oroiz, arimen lotsaz, euren izena eroaten eben. Erderaz gaiñera, bear ba da erroleko legeen baten arabera» (88.o.).

«Batak edo besteak, txalupa batekoak edo bestekoak, ia alkarregaz etxeruntz etorten ziran lez, joaldien bat egin nai izaten eben, euren ibilleran, eguneroko ekinbear orreri poztasun eta berezitasunen bat sartzeko be» (89.o.).

* * *

ADIERAZLEA

Bigarren zati onetan, zera azalduko dogu: Kontatze orretarako, narradoreak erabili dituan bideak, au da, kontatua zelan kontatzen dauan.

Testuaren egitura bakoitzak bere izenburua daroan 49 ataletan bananduta dago eleberru au. Lenengokoak, aurkezpen antzeko bat egitera zuzenduta dagoz, bigarrenak ostera, jazoeren aria aurrea eroateko.

Idaztia aurkeztuteko erea da egitura mallan gauzarik nabarriena. Idazlan au irakurterakoan, alkar izketa asko, eta goitik beerrantz jarritako asaldi laburrakaz aurkituten gara geien baten, eta egitura orrek, arintasun atsegingarri bat damotso testuari. Jokera au, sarritan ikusten da Zubikarainen idaztietan, eta nere ustez, jokera zuzen bat da jendeari euskeraz irakurtera eragiteko.

* * *

BESTE IZKUNTZAK

Gauza atsegiña da baita be, eleberrian zear an or emen gallegoz mintzatutako esaldiak aurkitutea. Beste izkuntza batzutako esaldiak testuan sartzea, jokera sarria da gaurko nobelagilleen artean. Nainko dira Anton Guzurretxekoak: «Karailu!» (22.o.), «Na tua beleza

ELERTIA

inxenua eu vexo certos encantos...» (27.o.), «O Virxe da Franqueira» (42.o.), O Pedriño manxador / chegou a perder o unto, / levárono a Santa Comba / cun hábito de difunto...» (74.o.) Eta abar.

* * *

TOKIA

Nobela onetako ekintzarik geienak Ondarrun igaroten dira. Baiña ba dagoz beste leku batzuetan igaroten diranak be, orrela, kapitulo oso bat, itxasoan doa, eta beste batzuk, Mendaron (159...) Angiozar'en (1677), Bergarako S. M. Otxondon (172...), Etab.

* * *

DENBOREA

Eleberri onetako jazoerak, gaur bizi dogun gizaldiaren asierakoak dira. Petra, 60 urteko emakumea, berak 20 eukazala, bere aita karlistetan il zanetik dabil lanean (30-31.o.). Anton, 34 urteko mutillaren aita be, azkenengo jasoaldiko karlista ei zan (31.o.). Azken jasoaldi au, 1872'tik, 1876 artekoa izan zala artzen ba dogu, atara kontuak!!

Ezin da esan zeatz eleberriko jazoerak luzatzen diran denbora unea, baiña ez da luzeegia. Egun batzutakoa geien bat. Lenengoko egunean, Rosiña agertzen danean, laster baten eltzen da gaua, eta agertzen jako Antoneri 12'etan itsasoratza bearra. Bigarren eguna, itsasoan igaroten dau Antonek, eta barriri Ondarrurutzen danean, berandu zala eta, biaramon goizerako itxiten dabe patroiak etan biak, alkarren artean euki bear daben jardunaldia (94.o.). Gau orretan, «lo luzea euki eban Anton'ek, lo baketsu, nasai, atsedengarria» (100.o.). Iruigarrena, jazoeraz beteenetarikoa da, bertan igarotzen bai dira, Guzurretzeko autuak, Petraren ikustaldia, patroï zaarra eta Antonen

arteko alkarizketea, kaleko garrakeriak, Petraren eriotzea, Rosiñaren asarreak... Iñolako denbora zeaztasun barik «Elizkizuna egin zan» (146.o.) diñotsu narradoreak; Baiña gure artean, geienetan illetak eriotzaren biaramongo egunean egin oi diranez, elizkizunenagaz, laugarren eguna betetzen dogu. Lau egunoi beste bost erantsi bear dautseguz: «Bost egun igaro orduko, eskribaduak bere etxera dei egin eutseen Barbara eta Liberata'ri. Eta Antoneri» (155.o.). Emendik aurrera, ez da denbora zeaztasun geiagorik agertzen, baiña jazoerak kontuan arturik, 3 edo 4 egunetan luzatzen dirala esango neuke nik. Orrela ba, nobelako eginkizun guztiak 11 edo 12 bat eguneko denbora unean igaroten dira.

Bestalde, Kontalariaren oraiña eta nobelako jazoeren artean dagoan desberdintasuna, naiko argi agertzen da idazlan onetan. Narradorea, atzerantz begira eta an ikusten dauana idatzirik jarten dagoala dirudi, aditza, leen aldi erabilten dau eta. Argi bereiztuten dira ba narrazio eta fikzioaren denborak. Onetan eleberri klasiko baten aurrean gagozala esan bear da. Kontalariak, leen jazotako zer edo zer azaltzen dausku, gizaldi onen asieran Ondarruko errian, 11 edo 12 eguneko denbora une baten igaro diran asmatutako jazoera batzuk.

Narrazioaren denbora ez doa eten barik aurrera eta aurrera, baten baño geiagotan aurkituten gara fikzioari dagokion zer edo zer argituteko atzerantzako begiradakaz eta. 42. kapituloan Antonen umearoatzaz emoten jakuzan zeaztasunak dira diñogun onen adibide bat (167.o.).

Fikzioaren abiadureari dagokion zerbait be esango dogu. Eleberriaren parte andi bat alkarizketaz betetuta dagoan ezkerro, zati onetan batera doaz aurrera narrazio eta fikzioa. Deskripziñoetan ostera, txikiagoa da fikzioaren

abiadura, narraziñoarena baiño. Ba dagoz gure eleberrian onetakoak: Guzurretxe (15...), Petraren gela (76.o.), Mitxelen etxea (132.o.), etab. Beste batzutan, atzekoz aurrekoa jazotzen da, ots, Fikzioaren aurreratze andi baten, narrazioaren beste txikiago bat aurkitzen dogu. Auxe da diñogun onen adibiderik nabariena, eta batez bakarretarikoa, benetan dira gitxiak eta: «Bost egun igaro orduko, eskribaduak...» (155.o.). Ikusi daikenez kontatze mota guztiak ikusten dira «Anton Guzurretxe»n, baiña garrantzitsuena, zalantza barik alkar izketak dira.

* * *

KONTALARIAREN IKUSPEGIA

Narradorea, jazoeretan parte artu barik, fikzio barruan dagoan norki bat da, au da, norki ikusezin bat. Eleberri onetako, narradore klasiko bat da: Danajakillea, norki guztien asmo, sentimendu, beldur eta barruko gora beera guztiak ezagutzen bai ditu:

«Ez zan andik iñora aldatu, ta ez gogorik ez eukalako» (62.o.).

«Onek be ez ekian ez zer esan, ez zetan jardun, ez nora joan» (62.o.).

Bestalde, norkien artean eleberri guztian zear igaro ondoren, irakurleari, euren ontasun edo txarkerie i buruz, bere ondorenak ateraten itxi bearrean, narradoreak berak egiten dau (argi argi agertu ez arren) norki on eta txarren arteko berezketa ori, onetan epaimaai batekoa balitz lege agertzen jakula. Orrela, esaterako, Antonen aurkako norkiei, irakurlearengan, areenganako ezin ikusi bat lortzera zuzenduta dagozan izenlagun batzuk jartzen dautsez:

«Piru. Gizon zakarra zan a. Eroapen gitxikoa. Soiñez be baldarra eta zikiña. Bere zatarkez...» (87.o.).

«Peru, egoskari, baldar, arroputz, zitala» (125.o.).


Edo ta, Guzurretxeko agureak: (102, 103.o.).

Au, nobelagille klasikoen beste berezitasun bat da.

* * *

NORKIAK

Norkirik garrantzitsuena, An-



- Argigarriak: Ezkontza: -----
- Zearrekoak:.. Ezkontza kanpoko artu emonak:....
- Goitik beranzkoak:.. Ezkontzako semeak: |
- Ezkontza kanpokoak: |
- Semetzakoak: |

Itaun ezaugarriakaz orniduta dagozan lerroak, Eleberrian zear ezagutu bako, azkenean argituten diran sendi zer ikusiak dira.

Beste norki batzuk be agertzen

ton dogu, beraren inguruan lotzen da trama guztia eta. Arlo onetan, norkien artean dagoan naaste interesgarria gailenduko neuke nik; guraso ezezagun eta eriotzatuak dirala eta, sortzen dan naastea. Ona emen norki garrantzitsuenen arteko, sendi zer ikusiak, eleberriarren azkenerantz geratzen diran eran:

dira ikusten gagozan eleberrian baiña ez dira onek aña interesgarriak. Orrela, Antonen aurkako tzat agertzen diranak: Peru, Millan, Paputs, Kose, Andres Salo-

mon... edo generakoak: Abade bi, Mendaroko Monjak, Ango Sakristaua, Baserritar bat, Ontziko mutilla, Elizpean Antonegaz autuetan dabillana...

* * *

ERITXIA

Eleberri onetan, ezin obean argazkituta ikusi daitezke gizaldi onen asierako Ondarruko, oitura, bizitza eta gizadien gora beerak. Orixe da nere ustez era zoritsuenez lortzen dauana. Ari edo traman utsen bat edo beste aurkituten dira baiña naiko ondo estalduta dagoz goian aipatutako apartategaz (acierto). Estiloa, naiko zuzen eta sikua da. Esaldi luze, erretoriko, azaltsuak gitxi dira, ba dira. Edergarriak be, an or emenka bakarrik aurkitzen dira. Ikusi daikenez gaurko eskarietara moldatuta dago onetan, nobela guztiz klasikoa izan arren. Irakurri, mesedez eta nik emen esandako zer edo zeren aurkakorik barruntzen ba dozue, idatzi aldizkari onetara. Orduan egongo gara gure elertiarri bizitasun geiago emoteko bidean.

JOSU IÑAKI
ERKOREKA

Bermeo.28-VIII-1982

- Euskal-Elertiak bizi dauan arazorik aundienetariko bat, kritikarik-eza da.
- Zubikarai Euskereak izan dauan euzkerazko eguneroko bakarrean idazkolako izan zan.
- «Anton Guzurretxe»n aria ta aldi aretako Ondarroa dira gauza gogoangarriak.
- Zubikarai'k bere eleberrietan, iñoz gai bardiñak erabilten dauz, ez adu bardiñaz.
- Ukatu-eziña da Txomi Agirre ta Zubikarai'ren eleberrien artean dagoan alkarren antza.
- Esaldi laburrak erabilten dauz eta orrek arintasuna emoten dautso eleberriari.
- Gauza atsegiña da an or emen galitzieraz idatzitako esaldiak aurkitzea.
- Narradorea, edeslaria, jazoeretan parte artu barik, barruan dagoan norki bat da.
- Eleberria klasiku - tankerakoa izan arren, gaurko eskarietara moldatuta dago.

UNBE TA ANDRA MARIA

Joan dan aurtengo udabarrian senar-emazte bazuk aurkitu nebazan eta ez dakit zer zala-ta, alkarraz berbetan asi giñan.

Andrea ba-ekian euskeraz eta gizonak ulertu bai, baiña berba egin ez.

Gizon au Andra Maria'ren zale aundia zan eta bere oneraspen au zabaltzen zintzoa ta sutsua.

Abade-soiñekoz jantzita neu ikusirik, senar-emazte biok Unbe'ko agertaldiai buruz nire eritxia zein zan itaundu eusten.

Ludi onetako materialismu-zalekeriz ondatuta gagozenontzat, Jaungoikoagan, Jesukristo'gan, Andra Maria'gan eta betiko bizitzan gogoia ipinteko astirik be ez dogula izaten esan neuntsen, eta orregaitik olako arazoak aztertu-bearra ondo etorriko dala.

Agertaldi orreik egiazkoak diran ala ez, norbaiten irudimenean dagozan ala ez, Eleizeak erabagi bear dau eta benetakoak izan ezker Jaungoikoagana ta Andra Maria'gana gizataldeen biotzak eta gogoak eroateko ta otoitz egiteko bidea izaten dira eta orduan ez dauko eragozpenik oneraspen ori onartzeko.

Nire eritxi au jakin eta ikusita, Unbe'ko jazokizunai buruz idazteko eskatu eusten, euskeraz eta euskerazko aldizkari baten bidez eritxi au jakin-azoteko.

Eta auxe egin gura dot gaur nire oiturazko izkuntzaz.

1858n. urtean Lourdes'en lez, 1917n.'ean Fatiman' agertu zala Andra Maria diñoeta Unbe'n be

orrelako agerraldiren bat izan eta dan 1968n. urtean zabaldu da katolikuen artean.

Unbe-ganean, bide bat artuaz baso-oian jabedun zabal batera sartzen gara, piñadi ta eukalitu-arteko toki gozo ta baketsura.

Iturri batetik urtendako ura, uste danez Andra Maria'k onetsitakoa, eltzen da osin batera.

An, berrogei ta amar neurkin barrurago, toki zelaitu baten, Sistiaga'tar Felisa ikuslearen sendia bizi zan baso-etxea agertzen jaku. Toki onetara etorten dira erromesak Ama Birjiñearen etxean, agurtza egitera, errosaioa errezaera.

1941'eko epaillaren 25'ean, gabeko amabietan, Felisa'k bere etxeko suetea goitik jatsiten zan dirdari aundi bat ikusi ei eban. Txoko baten ikusi eban Andra Maria eta belaukinkatu, bere alboetan argi bana iziotuta eban. Neketsu lez jantzita, eder-ederra, irribarrez, amazortzi urte inguruko neskatilla baten antzekoa zan.

Felisa lilluratuta, poz-pozik, geratu zan.

Birjiñak ez eutson barbarik egin eta beingoan alden du zan.

1969'ko urrillaren 9'an, gabeko amarretan, Sistiaga'ren Sendia osiñaren ondoan aurkitzen zanean, aingeru bat agertu ei zan Andra Maria'ren Mezulari.

Onak uleguri edo tertziopelo-zati bat emon eutson, Birjiñaren irudia alangoxia izan bear zala adierazoz.

Felisa'k aingerua ikusi eban beste etxekoak dirdari bizi-bizikiak eta baita aingerua bera be une baten, zeruko abestaldien abestiak entzuten ebezan artean.

1970'ean, garagarrillaren 14'an, Agurtza esaten egozala, Birjiñea agertu jakon Felisa'ri eta auxe esan eutson: «Lurrean bete egizue nire guraria, nik zeruen zuena beteko dot-eta. Neuk urrinduko dautzuedaz negar-zotiñak eta antziak.

1970'eko garagarrillaren 31'n Ama Birjiñeak beste au esan eutson: «Nik eskintzen dodana bete egiten dot eta urak osatu egingo dau». Eta iru notin osatu ei ziran.

1970'eko zemendiaren 30'ean agurtza esateko batuta egozala, argi bat ikusi eben ara etorriak eta Felisa ikusleak Ama Birjiñea ikusi eban eurakaz batera agurtza esaten. Mundura bakea ekarteko bere naia agertu eta toki aretara otoitz egitera etorteko eskatu ei eutson.

Lenengoz agertu zan gelan, 1978'ko irailaren 2'an eleiz-inguru-ostean, ipiñi zan Ama Neketsu Garbiaren irudia zurez, egurrez, trebeki landuta, uleguri edo tertziopelozko soingaiñeko baltzez jantzia. Orrelan bete zan bere gurari bat.

LETONA'k



EGOERA

Nere aurrian daukat Villasante jaunaren agiri au «EUSKERA-REN EGOERA-XX». MENDEKO AITZIN ALDEAN (1936.URTERARTE).

Olan arakutzen dau asiera. Agiri onek ez dau ezer argitzen, gitxi gora bera, danok dakiguzan auziak, auzi merkeak baño ez dira.

*Ez naiz batuko idazkeraren irakurlaria baño gure izkuntza-
ren lendakari jaunaren agiria dan lez, alegindu egin naiz ia zerbait garrantzizko argitasunik bilatzen neban, baño ona emen, lengo lez geratua nere irakasbide ontan. Eta, ez bakarrik len lez, egia esan minduta geratu naiz 1936 urterarteko agiri laburpen ontan ez erakusten emotea azken-urte ortan, gure izkuntz zoragarriak euki eban gorralpen sutsua.*

Zori txarrez, beti gertatzen dana da, une gitxi eukiten dogula biar dan lez erantzuteko, baño, dana dala, guazen erantzunak banantzen.

Asieran diñon lez, atzerakada aundiak euki ditula gure izkuntzak, Araba'n XVIII mendean, Naparroak XIX, Bilbao'n ta ibai ezker-aldeko erriak ere galdu ebe-la izkuntza, beste guztioz euzkaldun jarraitzen dogula, ez dau izentatzen Errioxa ta beste lurralderik. Dana dala, danok dakigun gauza da.

Jarraitzen dau esaten, gizarte goi malako notintza geienak ez dirala euzkaldunak, baita ere Donosti kendu ta beste Uriburuak galduak dirala euzkerarentzat. Eskoletan ere ez daukala sarrerarik gure izkuntzak. Euzkera, goimalan ez dala erabili. Esaera baten, gure izkuntza, il-bizi azkentan dagola. Eliza izan dala zerbait egin dauana gure izkuntza gaitik. Apaiz asko izan dirala euzkerari bizitasuna emon eutsenak ta, biar bada Eleizak, euzke-

ragaitik egin dauana, egingo eba-la euzkerak, ez daukalako bardintasunik gastelar izkuntzagaz. Euzkalerrria, oso kristau, oso sutsua ta, «gheto» baten antzerakoa dalako.

Gai onek ere jakiñekuak dira ardura apur bat daukenentzat, baño, ezer ez dau adierazten, Gu goi-malakuak ez geranak gara ba euzkal oñordekoak.

Iñok eskubiderik badauko euzkeraren erabagia emoteko, zuk esaten dozun lez, gure izkuntza bardintasun bakoa dalako gastelar eta beste izkuntz guztien gañetik gaurarteraño gordeten jakin dogunok, daukagu eskubide bakarra eta ez dogu nai goizetik gabera saiotegiko izkuntz-esperanto nasturik.

Zu, benetan Gernika'rra bazara eta umetatik euzkera baño ez bada izan zure izkuntza, euzkel oldozkera euki biar dozu, baño, euzkaldun-berri bazara jakiñekua, zure oldozkera gastelar oldoztuko dozula. Ortik datoz ba «adjetivo», «puzkarperfecto»ta abar.

Diñozu ba, Eleiza izan dala euzkeragaitik geien egin dauna.

Bai, Eleiza izan da eta da euzkeragaitik lanean jarraitzen dauana.

Baña, zuk diñozun lez, gaurko egunian Eleizaren babes, txikitzen doia. Zelan ez da txikituko ba? Zu ere elizgizon zara eta naiago dozu jainkogabe ATEO batzun ereduz jokatu: Krutwig, Txilardegi, Aristi ta Quintana, «EUSKARA BATUA»ren sortzaleak. Arana Goiri, kristau fededun zintzoaren arerioak. Azkue ere bai, Sabin'en arerioa izan zan, baño, azken-orduan erakusten emon eban, Sabin izan zala zalantza barik, euzkera berpiztu, indartu eta erakutsi euzkuna. Gizon aundi orrentzako eskatzen eba-la oroitarri aundi bat. Ludi

ontako gora bera guztien gañetik, Euzkera izan zan lenbiziko gaia Azkue jaunarentzat.

Gaur, euzkel zentzuna oso nastuta dago berrogei urteko ilunpe negargarri onekin.

Ezkertarrak, goratuta dabilz guk lagaten dautsegulako, oso txaideratuta dagoz eta bildurtuta gagozala dirudi. Esku zabaltzen gabiltz, alako baten guregananduko doguzalata. «Rendibu» geiegi egiten gabiltz ezkertarri.

Lendakari jauna: Iñok baizen obeto dakizu gaurko euzkeraren asmakizun negargarria ez dala legezko auzia, baizik dana da Arana Goiri'tar Sabin'en ustaria suntsitutzia, emen ez dago besterik, gizon aundi orren gorrotoa azaldu dala ez abertzaletasuna erakutsi erriari eutsolako kristau fededun osoa zalako, baizik.

Lendakari jauna, gizon jakitun lez egin zaitue EUSKALTZAIN-DIA'ko lendakari ta, uste dot, nik baño geiago irakurriko dozula eta «VASCONIA» eta «LA NUEVA VASCONIA» irakurriko zendula. Or ikusten da ba eleiztar eta elizkoi guztiai azaltzen dautsen gorroto zital madarikatua. Ikusi baño ez dago Loiolagaitik zer esaten dauan.

Baita diñozu Unamuno izan zala areriorik amorrotuena euzkerarentzat. Sabin jarki jakolako, Unamuno orren burubideak bapeztuta geratu zirala. Zuen goimalan zabiltzanon artean Arana Goiri'ren benetako jarraitzaleak balegoz, gaur, ez litzake egongo dagon lako euzkeraren buruausterik.

Zori txarrez, ez daukat biar dan besteko asti-unerik nasaitasun guztiakin idazteko eta emen nabil al dan geiegi moztutzen ta Calvo Sotelo'k esan eban antzerako esaerarekin, agurtzen naiz antes euzkadi roja española que EUZKADI Sabiniana baita ere esangura dot «al buen entendedor pocas palabras».

GORRI

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

PALESTINDARRAK

Oitura daben lez Espaini'ko gizarte-mezu-bideek edo («medios de comunicación social») diralako oiek, txarto agertu dituzte oraingoan ere gauzak. Ez dautsegu arabitarren alde bakarrik, mintzatu dirala beti, aurpegira jaurtiko, badakigu ba, espainiarrak eta arabitarrek anaiak dirala; ori, berak ere milla aldiz esan dabe-ta. Baña bai, OLP eta palestindarrak gauza berbera balira lez aurkeztu edo presentau dabezalako. Euskaldunok errezegi itzi dogu Paris'ko edo Londres'ko irratiak entzuteko oitura; eta Espaini'tiko albisteekin, besterik gabe, bapo gelditzen gara. Munduko gertakizunak zuzenki jakin gura ba'doguz, len ain gogo onez entzuten genduzan bi irrati zentzuzko oietara itzuli bear dogu ostera.

OLP eta Palestindarrak ez dira gauza berdiña, emen, adibidez. ETA ta euskaldunok gauza berdiña ez geran bezala.

OLP; (gaztelera «Organización para la Liberación de Palestina») edo, beraiek ingelesez esaten daben lez, PLO («Palestinian Liberation Organization»). «El batua»zaleek dagozan bezelaxe artuko leukeez lenizki edo inisial oiek eta «Palestina'ren Liberapenarako Organizapena» itzuli. Guk ordea «Palestina'ren Askatasunerako

Erakundea», PAE, esango geunkio.

PAE ori, bada, Borrokarako ortzetaraiño izkilluz edo armaz jantzitako Alkarte bat da. Ez, gainera, bakarra; emen ere ETA bat baiño geiago diran lez, an ere Borrokalari-Talde asko bait dira, eta beren artean emengoak baiño ez-berdiñagoak, emengo ETA guztiak, azken- mailan, danak bat bait dira, EE eta HB ere bat diran bezala.

Orregaitik, Hussein erregeak orain dala urte batzuetako «Irail Beltz» artan palestindarrak Jordani'tik tiroka atera ebazala, Espaini'ko izparringi eta irratiak esaten dabenean ez dabe egia esaten. Hussein'ek Talde Izkillatu edo armatuak atera ebazan. Palestina'tik Jordani'ra iges egin eben palestindarrak an bizi dira oraindik. Gaur bertan Jordani'ko biztanle edo abitanterik geienak, erdia baiño geiago, palestindar aiek dira. Libano'tik ere palestindarrak ez dira jaurtiak izan. Talde Borrokalariak izan dira jaurtiak. Besteak an dagoz. 600.000 badira. Batzuek ogei urte baiño geiago badaramazkite bertan. Besteak azkeneko Palestin-Gudan aruntz iges egiñak dira. Ta an jarraituko dabe danak bizitzen. Aiek etorri arte erdikris-

tau eta erdi-maometar zan Libano'rako ziri latza dira Laterri edo Estaduaren pakerako palestindar aiek, ia-ia danak maomatar izanik ango kristaudentzat arrisku andia izan daitekezalako. Ala ere ez dauz inork Libano'tik bidali nai. Palestindar Talde Borrokalariak, ordea, Arabitar- munduko laterriek berak ez dabez beren mugen barruan artu nai; eta, azken-azkenean, beste jokabiderik ez ebela-ko, mundu osoaren aurren lotsagarri ez gelditzearren zabaldu dautseez atea.

Baiña besteek, borrokalari ez diran palestindar paketsuek, ez al dabe Laterri yare edo libre bat eratzeko eskubiderik? Bai. Erri guztiak dabe eskubide ori. Guk, euskaldunok, guk ere bai; guk ere badogu Laterri yare bat eratzeko eskubidea.

Baiña palestindarrek non eraiki bear dabe Laterri yare ori? Palestina'n. Palestina beraiena da. II mendea ezker, ia bi milla urtez, palestindarrak Palestina'n bizi izan dira. Bada, noski, naiko denbora Palestina berena dala esateko.

Eta, judutarrak?, israeldarrak? Beste egun baten mintzatuko gara judutarren arazoaz.

LATIEGI'TAR BIXENTE

XXVIII SALMUA (euskerazko 8'garrena)

Salmu onek Bibliako Samuel'en 1.º liburuko 16, 7'garren ataltxoaz azaltzen dau: «Baiña Jaunak Samuel'i auxe esan eutsan: 'Ez begiratu orren itxurea ta luzeera aundia, ori alde batera itxita daukat-eta. Izan be, Jaunak ez dau gizonak lez begiratzen; gizonak gorputzaren itxurea ikusten dabe; Jaungoikoak, barriz, biotza'». Orixe da Qumran'go salmu-egilleak esan gura euskuna: orixe zala, ain zuzen be, Jaungoikoak Dabid'en biotzean ikusten ebana.

Barruko guzti au Mesias'en irudia da. Orrexe gaitik esaten yako Dabid'i «buruzagi», «nagusi»; berba oneik Mesias'en ezaugarriak dira.

DABID'EN ALELUIA

¹Nire anaïtarik txikiena nintzan ni, nire aitaren semeatarik gazteena. Berak izentatu nenduan ²bere artaldearen artzain eta bere aumen buruzagi.

Nire eskuz txilibitu bat egin neban eta nire atzamarrez lira bat, ³eta Jaungoikoari aintza emon neutsan. Auxe pentsatu neban nire barruan: Mendiak ez dautsoe autor egiten, ⁴mendikumeak ez dabe A ira-

garten, zugatzak ots aundiz daroez nire berbak eta artaldeak nire egintzak.

⁵Nok iragarriko dauz, ba, nire egintzak?, nok abestuko ditu?, nok esango dauz? Munduaren ja-beak ikusi dau. ⁶Munduaren Jaungoikoak, Berberak, aditu dau. Berberak entzun dau. Igarlea bialdu eban ni igurtzitera, Samuel ni gora jasotera. Neure anaïak urten yakozan bidera: lerdanak oiñez ibilkeran, itxura dotoreak, gorpuzkera garaiak. ⁸Arein adatsa ederra zan, baiña ez ebazan Jainko Jaunak aukeratu. Neu billatzeko agindu eban, ⁹nik artaldea zaintzen niarduala, eta orio santuaz igurtzi nenduan eta bere erriaren buruzagi ta ¹⁰bere Alkartasuneko semeen artean nagusi egin nenduan.

¹¹Dabid'en egitsarien asierea, Jaungoikoaren igarleak aukeratuta gero. Orduan, (Dabid'ek) filistar bat ikusi eban, ¹²eta au filistarren taldetik aupadaka asi zan.

Ementxe amaitzen dira Qumran'go zortzi Salmuak.

KEREXETA

IIGORAPEN-ABESTIA

¹... ..

²[Gaiztoak bertan-beera itzi eban] erospen-alkartasuna [aldapa-beera gaiztakeriaren egintzetaruntz larrapast egiñik].

³Zuk zuzentasun eta egi-espirtua ezarri zenduan ezker,

⁴bizidun guztiakan, jaso egiten dozu lokatza legor eta britzatua zure abotsaren itzez.

⁵[Zeure zainpean dozuz...] bizi-toki guztietan dongearen aurrean euren espirtua dardaraka dabena,

⁶euren biotza koloka dabena [...].

⁷Miiñera bizkortasuna isurten dautsezu, ezpan erdaindubagez berba egiten dauanari erantzuteko.

Askatu egiten dozu griña-txartegitik gizon lotsabagak oiñazetutako arimea.

⁸Bide zuzenean nire oiñai sendotasuna emon zeutsen, gaiztakeriari iñoiz be amor-egin ez dagiodan.

⁹Lakioa lez egingo naz pekatarietzat eta, bide batez, indar osasungarri pekatutik askatzea nai dabenentzat. Maltzurra eritziko dauste lauak; makalak, barriz, oso sendoa.

Begien aurre-aurrean jarriko naz,

¹⁰saltzailleen aldetik iguingarri ta lotsagarri [izateko ariskuaz be]. Egiaren eta adimenaren ezkutua, osotasunean ibilteko adorea dabena dago. Dongen dongakeria [zigortzeko], ezpan oldartsuen —biraolarien— autorpena lez izango naz.

¹¹Biraolariak euren ezpanak karraskaka darabillez nire aurka. Isekagarri nakie pekatariak.

¹²Orroeka diardue nire aurka dongen batzarrekoak. Itsas-aundiko ekatxa lez sumintzen dira.

¹³Arein olatu legorak lupatza ta lokatzea txipriztintzen dabez.

Baiña Zuk aukeratuentzat ikurrin zuzena lez ezarri nozu, misterio miragarrien jakituriaz beteriko adierazle egin nozu.

Aberbide nakie egiari jarraitu nai dautsoenai.

¹⁴Neugan epaiztzen dabez euren buruak zuzentasuna billatzen dabena.

Okerkeriaren jarraitzaileak mugatzen dauzan gizona naz.

¹⁵Bake-iturri egia ezagutzen dabena guztientzat. Ni entzutean, sumindu egiten dira amor-egitea atsegin dabena.

¹⁶Gizon maltzur guztiak azpi-jokatzen diardue, itsas-aundiak lez diardue orroeka nire aurka.

Arein bururapenak deabru-lakioak lez dira.

¹⁷Illobian sartzen dabe gizonaren onoinena; aren agoan Zuk irakaspena ezarri dozunarren be,

¹⁸aren biotzean adimena ezarri zenduanarren be, onak diranentzat ezaguera-iturri bat zabaldu dagien.

Areik bertan-beera itzi dabe (iturri ori), ezpan zikiñak billatzen dabezala.

¹⁹Ulertzen ez dauan erriaren berbeta arrotzaz aseten dira.

Beste batzuek jarraitzen dautsoen bidean galtzen dira.

KEREXETA

MUNDUAREN NEGARRA

*Munduak negar dagi,
oiu eta karraxi...
sutan dago, gar bizi.*

*Batzuk geiegikeriz
ta, euren aundikeriz,
txilborra erakusiz.*

*Besteak aundi naiez
dabiltza, gora-bidez,
euren zorrozkeriez.*

*Beste batzuk, tentel,
(gura eta ezin el)
erdi iger ta zimel.*

*Geienak ill ez bizi,
—ta, zenbat zauri gorri!—
negarraren iturri.*

*Gitxi batzuen ona
(askoren ondamena)
nun ete nun zoriona?*

*Danok estu ta larri
(alkar ezin ikusi)
ero ta barregarri.*

*Gitxi batzun indarra
(petrolioarenugarra)
miseri ta negarra.*

*Zer gertatukoz bildur,
(ta ez mami ez azur)
maitasunez ain labur!*

*Ez biotz ta ez buru
(geldorik eta mutu)
gauzak zelan atondu?*

MUNIATEGI-tar SABIN

NOR

*Egillearentzako
aldia bakarra da
beren ekiñean;
len, orain ta geroak
jakituririk ez dau
Aitaren aurrean.*

*Oro, batera, dakus
beraren argitara
jaubetasunean;
eskuetan garoaz
beti, maitasunean
une berberean.*

*Nire lena, nun, zara...?
Negarrez ta pozez
joan zan aldia.
Zer egin zendun gizon
ta Jaungoikoarentzat,
biotz minberia...!*

*Dei garratza entzunik,
zer dagizu, gogoia,
negarren artian...?
Zuzentasunik ez da,
arrokeriz beterik,
gizonen bizian.*

*Zer egin nai zenduke
Jainko Altsu aurrean
gizonen miñetan...?
Otsoak, gogor, dabiltz,
dana ondatu nairik
lurraren bidetan.*

*Samiña dabil nausi.
Zertan dabil gizona
uger ta bizerrez...
Apurtzen ibiliaz,
zer mesede eiten dok
gizonaren alde...?*

PAULIN

NORA OTE GOAZ!

Aspaldi ontatik onako aldakuntzak, geroago ta argipentsuagoak dira gaurko gure euzkal giro onetan, asi gara ba ikusten nor, nordan, nundik norako errenakin gabiltzan, norañokoak diran bata bestearen akatsak, zelan aurkeztu bata bestiarene gana, batabestiaren susmoa artuta daukagun lez, bereala susmatzen dogu etorburuko zurrumuru guztiak.

Eldu gara ba onik onenerako eragipen batera, zori txarrez, anai arteko gorroto ziztriñak, geiegi sustraittu dira azken urte ontan, Alderdi'a nere ustez, etorkor edo bigunkeriz ibilli arren, orreik, euzkaldunak dirala esaten dabenakin, eten bako jazarpen gorroto ziztriña, nun nai agertzen dabe alderdikizun guztiari ta olan, gogorkeriz lortu dabe gure euzkera gaixoaren REQUIESCAT IN PACE.

Tamalgarria da bai gaurko giro madarikatu au gure euzkeraren giroz; burukide geienak, Sabin'ek sortu eban Euzko Alderdi'ko burukidearentzat, «politica» da gaurko lenengo gaia, bai, geiegi «politica» tu gaitue, egunetik egunera ikusten nago, ez gengoza gertauta jaurlaritzarako, bai gastelar eta ezker aldetik dabiltzazan «abertzaleak», orek danok ez daukie beste elbururik, gure Alderdi'a apurto edo beñik bein aldatu goitik bera edo betik gora, baña, aldatu ta olan, Sabin guria, sekula ezin geinken aintzaldubiardan beste gizon deun ori, betiko baztertu.

Berrogei urte oneik, Franco'ren berrogei urte oneik, euzkal buru aldaketa aundia ekarri dauskue, jatortasunezko euzkal girorik ez dot ikusten, egia da bai gaur urrutirudizkin bittartez euzkal suntsiketa gogorra daukagula, españatarak, ondo baño obeto ikusita dago euzkaldunen arerio amorrotuak dirala espñatarren irixpidea da, Alderdi'a ospegetutzea, ortarako gure ezkertarrak ere aizkide dabiltz erroi baltzak lez zain noiz atzaparkadatu, ta bitartian gu..., ¿zer?

Abertzaleasuna artu gendua gure aita Sabin'en iturritik, gaurko abertzaleasunaren iturria ikusita dago nundik datorren eta nora nai dogun juan, Jaungoiku eta lege zarraren eupada gitxi entzuten dogu, Sabin'en oroipenak ere igarri barik joaten dira, euzkera, abertzaleasunaren lenbiziko elburu ere arduragabetu dogu, bai euzkera eta yakintza, bide ertzian laga dogu «abertzaleak» dirala esaten daben eskuetan, ez gara gogoratzen Sabin izan zala danen gañetik, gure izkuntzaren berpiztzaiea, dirudin lez YAKINTZA eta EUZKERA baño garrantzitsuagoa izan biar da LOAPA.

EUZKADI da EUZKOTARREN ABERRIA, Arana Goiri tar Sabin'ek itz au esan ebanetik gaur arteraño, espñatarren itsukeria izan da Alderdi'ak agertu eban araudi ukatzia, zenbat eta oztosaritsu gorrototsua agertu espñatarak, gu, euzkal zentzun garundun aberkoiago egiten giñan, ez geunkan ba atzerrira begiratu biarrik erriaren onerako gaia biar bazan, dana egiten zan Jaungoiko eta

Lege Zarra'ren bitartez, bai Euzko Langille, Nekazaritza, Tostarteko ta lankidetasun guztia, Jaungoiko edo eskuma bitarteko izen eta usaiñian egiten zan ta ez gaurko lez, dana izan biar da sicialismo ezkertar bitartez.

Euzkerarekin ere bardin jazoten da, len ez genduan begiratzen gastelerazko edo prantzezeko «VERBO» olako edo bestelakoa danik, guri erakutsi euskun, euzkerak ez daukala senidetasunik iñorekin, euzkal berezitasunekua dan lez guretzako bakarrik nai dogula ta ez ludian ziar zabaltzeko internacionalizar nairik. Sendia (senidetik aztertutako itza) Sabin'ek asmatutakua dala ta ez ei da euzkaldun itza, euzkaldunago eida famili esatia, ola dago gaur gure izkuntzaren etorkizuna «EUSKARA BATUA»ren aurrez aurre jarkirik gagozenok, danok gara EUZKO ALDERDI JELTZA-koak edo beñik bein JEL'tzaletasunaren begizkoak, iñor ez dot ezagutzen edo ez naiz aurkitu iñungo batzarretan, HB, EE, ESB edo ezker alderdikide batekin, orrek, ezkertar orrek, itsupen eta zalantza barik artu daben aginduak, eso osorik oroaten dakie, sartu dautsie bai euren socialismo ezkerti ori kuntzurrunetaraño ta jarkera ortik ez dago zeregiñik.

Euzkerarekin ere socialismo lez esan dautsie «batua» dala euzkera jatorra eta naita irakurten jakin ez, itsu-itsuan dagoz «batu» ori aurrera eroateko gertaera gertatzen dan lez.

«Batu» zalearen lenbiziko elburua izan zan EUSKALTZAINDIA menperatutzia, Alderdi'a anti-franquismo itsutasunian ebillean bitartian, batutarrak lortu eben larttasun barik EUSKALTZAINDIA'n euretariako buruzai bat ipiñi eta On Manuel Lekuona'ren kerizpea kendu. Asmo ori lortu ebenian asi zan ba gure izkuntzaren maltzurkeria ta gaur, zori txarrez, JEL'kide dirala esaten daben batzuk ere or dabiltz batuzalien euren burua jakintsutzat artu dabenak, lotsarik ez dabenak euki garai baten Sabin'en omenaldietan aurrenengo ibilli ta beste aldetik «EUSKARA BATUA»ren alde jokatu, orreik intelektuales edo ikastun jakintsuak badira, ni, Millan Astrai'ren eritziagaz nago oso osoan.

Tamalgarria da lan oneik argitaraldue ezin biar dan lez bere garaian, ba, garagarrill erdi ingururako eginda daukaten lan au ez dakidaiaiko noiz argittaralduko dan; EUSKALTZAINDIA'k nun nai nun dauko bere erreztasuna, izparringi edo egunkarrietan, urrutirudizkin ta abar, ogi epelan lez zabaltzen dau lau axetara izpar eta aginduak, gu, aurrez aurre gagozenok «EUSKARA BATU» ontzat artzen ez dogunok, dana daukagu gure aurka, dirudi gaur, egiak ez dauka bizitzeko eskubiderik, orrexegaitik ba ludi ontako okerkeriak jabetasuntzen goiazten lez igarri barik, nere buruauste kexkagarria da, ze etorkizun eukiko daben gure izkuntzak eukel urrutirudizkin jabetasuna daukagunian.

GORRI

ARANA-GOIRI'TAR SABIN OLERKARI

Gure idazlantxu ontarako artu dogun idazpuru ori burutzat dabela argitaldu barri dau, Aita Onandia'k idazti barria. Irakurri dogu opor-alditxu bat «gure» Kantauri itxas-basterrian egun batzuk igaroten genduzan bitartean. Eta, jakiñal beste bear-bearezko ardurarik be ezgenduban lez egun orreitan, maitekiro, Sabin gure Irakaslearen lan guztiak lez, eta arretaz irakurri genduban ez ain mardul baiña bai mamitsu dan idazti irakurgarri ori.

«Arana-Gori'tar Sabin Olerkari» eta, zer etzan izan euzko-arlo guztietan Sabin euzko Irakasle aundia? Ez dago esan bearrik, olerki-arazoetan, olerki arloan, ba —zirela gure Irakaslea baiño ugariagoak, baiña, nork ipiñi eban olerkietan beren Aberriagana nako maitasuna, Aberri menperatuaren azke— sugarra Sabin'ek lez?: Ez beste batek.

Aita Onandia'k argitalduten dauskuzan orlerki orreitan ikusi geinkenez, Sabin'en olerki ta abesti guztietan ikusi geinke Aberri-maitasuna, erri-jolaserako idatzi zituan abesti leunetaraiño. Orretaraxe izan zan, izan be, Sabin beren euzko-lan guztietan; aberkoi, ordurarte beintzat, beste iñork baiño obeto sustraitik arakatuaz ezagutu ebalako beren, —da gure—, Aberria.

Gu baiño ikasiagoak «apaituko» dabe bearbada «Arana-Goiri'tar Sabin Olerkari» idaztia, beren idazkera eta darabitzan gaiak. Iñoz bere ez da danontzat atsegin idazle batzuk idatziten dabena, baiña guri beintzat, oso atsegin izan yaku idaztitzu mamitsu ori.

Lenen da baten geiagotan, Aita Onandia'k beren idazti guztietan darabilen euzkera ulerkorra, garbia ta aberatsagaitik eta, urren,

Sabin'etzazko eta ainbat geiago berak idatzia diranian, biyotz-barrenan zirt egiten dauskuelako.

Aipatu dogun idazti orretan argitalduten diran olerki orreik, Aita Onandia'k berak dirauskuzenez, «Bizkaitarra», «Baserritarra», «La Patria» ta lenegotako «Euzkadi» aldizkarietatik artuak izanik, geienak lendik irakurriak genduzan eta ainbat buruz be abestu doguzanak, baiña, Aita Onandia'k adirazo edo edatuta, iñondalako zirrada pozgarria sortu dausku gure barrenean! Ain bikainki arakatu ta azalduten ditu Sabin'en idazkera eta eginkizun aberkoiak! Ondo izango litzake oraingo «abertzale» barriak idazti bikain au irakurtea Irakaslearen lan sakonaren zatitxu bat baiño besterik ez ba'da be, jakin daien zelango sustraitua zan.

«Begien mende dozu deigarri bat, geldi-geldi irakurtekoa. Ez ezelan be elizxorien egazkada biziz, saiaren ego-ukaldi aundikoaz

baiño». Idazten asten yaku Aita Santi.

«Sabin'en olerkiak dituzu, maisu jakintsuaren sorpenak». Idatziten jarraituaz azalduten dausku Sabin'en nortasuna noraiñartekoa dan. Eta orretarako, II atalean adierazoten dausku euzkal idazle gorengoa dan Aita Onandia'k: «Naimen sendokoa zan Arana-Goiri, ta etzan iñoiz be kildu bizi-bidean jagi yakozan zoztor eta eragozpenen aurrean. Gogoko eban azterketa-lana ta orretan jarduna dogu aspertu barrik: asaben izkuntza jaso ta bitxitu, ona aren elburuetatik bat». Eta abar luze bat, orixe zan izan be gure Irakasle Sabin aztu gabea-ta. Jakituriz da zentzunez idazleak aztertuta.

Asieran esan dogunez, benetan idazti irakurgarria Aita Onandia'k idatzitako «Arana-Goiri'tar Sabin Olerkaria».

ALTUNA'TAR JOSU



**ESTOMBA'TAR MANUEL,
URKIOLA'KO ABADENA,
IDAZLE ON ETA UGARIA,
ZER ALDIZKARI ONEN
LAGUNTZAILLEA,
AITAREN ETXERA
JOAN JAKU.**

Gure irakurleai biotzeko samintasun aundiaz agertzen dautsegu barri negargarri au eta bere alde otoitz bero bat eskatzen dautsegu.

Aldizkari onen idazleen artean lenengoetarikoa izan danaren agurrak, gure sendi onetan lanerako gogo barria sortu-

ko dauala uste dogu, berak utsik izten dauan lekua nok bete izan dagigun.

**EMON EGIOZU, JAUNA,
BETIKO ATSEDENA.**



UDAKO IBILLALDIA

Aurreko urteetan lez, aurtengo udan be, Bilboko jende apalagaz, euskal erria obeto ezagututeko, ibilaldi bi egiñak gara: lenengoa, Aralarra beste bein be ibillera ori egiñak gara ta orretzaz zerbait idatzi genduan ZER'EN.

Bigarrena Gipuzkoarantz izan da. Ibillaldi txikia baiña zoragarria Santantonetik urten eta Durango, Eibar, Elgoibar eta Debatik zear, ITZIARRERA-Ementxe lenengo geldi-unea. Andra Mariaren eliz ederra ikustaldu, bertako abadearen azalpen argiak entzun, gero biriak aize garbiagaz bete ango ikusmira ederrari begira. Be aldean dogu kantauri itsaso zabal amaibakoa. Antxiñetan antxe alkartzen ziran arrantzaleak euren ontziakaz Andra Mariaren onepena artu ta itsas zabalera arrantzara joateko.

Dan ori ikusi ondoren, ango jantoki baten sekulako ondoen gosaldu genduan eta bidean aurrera, taranta polito-polito ta geldi-geldi ebillela aize osasuntsua artu ta inguruko zelai, solo ta zugazti zoragarriak ikusiaz. Zumaiako erri txukunari ara ta ona gira biratzo bat egin; Getarian egotaldi txiki bat eta Zarautzera. Goizeko egotaldirik luzeena, ementxe. Or ondartzera ederra, jantoki ta jauregi ederrak eta jendea parra parra, jantzi gutxiagaz, narrua baltzitzeko edo, oitura dan legez.

Gero bazkari gozatsua MEAGAZKO Azkue jatetxean. An bete genduan esaerak diñoena «ETORRI JAN TA EDAN

ORDAIN BEAR DAN LEZ

GERO JOAN BAKEAN

BARRUA POZ POZEZ». Ba zan an barruko poza ta abestu bearra ZEZTONATIK ZEAR LOIOLARA eldu arteraiño.

Emen etxe Santua ikustaldu, ordu beteko meza luzea itsaldi aundiagaz, baiña danak pozik IÑAKI DUNAREN edesti ta goralpenak entzuten. Urteeran danak ao batez iñoen: Olako gauzak entzurearren beste ordubete be egongo gintzazan Gure zaindaria- ren edestia benetan aberatsa ta sakona dalako. Ondoren Etxaniz jatetxean txokolatetxua, txurro gozoakaz artu ta illuntzean Bilborantz. Ori bai, ibillaldi guztian inguruko errien esaera edesti ta abar ondo azaldu geuntsen.

* * *

Onuntza gentozala, gugaz joian, oraintzu Bilbora etorri barria zan erdelkun batek iñoan: Au bai dala lurralde polita-Olakorik neure bizitza guztian ez dot ikusi, baiña Bilbo zatarra an joizan guztiak ao batez esan eben egia da.

Nik orduan: Ori esatea arinkeri bat ez da Bilbo itxusia. Olakoak esaten ditue Bilbo ondo ezagututen ez dabenak. Nik esango dodanari jarraitu irudimenez: gogortu San Anton ingurua, Eliz ederra

erreka ganeko zubiagaz, Zubi aldea jauregia, Politeknika etxe zoragarria eta abar, begiratu Bilbo urizarreko bost parroki eder baiño ederragoai, danetik ederrena, Santiagoko Eliz nagusia bere elizpe ikaragarriagaz eta Bilbotar gutxik esagutzen daben gotiku tankerasko klaustroagaz.

Zazpi kaleak, euskal erriko urietako alde zar politena, enparantza barria fin polit eta bardiña San Nikolas eta areatza inguru gorengoa, Arriaga antzoki teatrua, euskal erriko ederrena, Gran Via kalea Euzkadiko errietako kalerik luze ta ederrena bere jauregi aundi arlandukoakaz, Aldundiko jauregia, ezpaibarik inguruko urietatik aundien ta ederrena, Jesusen Biotzaren oroitari-monumentu lerdien luzea bere gain urregorri margozko Jesusen Biotzaren Irudia, onenatarikoa dan margozki-museu etxe ugaria, tamalez Bilbotar geienak ikustatu ez dabena, Udaltxearen arpegi ta barru bikain bikaiñak, Kanpo Volantin ibiltokia itxas ontzi ta guzti edertu ta, aunditua, Dustuko Ikastetxe nagusi sendo ta gogorra.

Esango, dozue danak, esaten dabena: Bilbok ez daukala zumardi ta lore baratzik, egia da bere barruan Areatza zugaztia, Albia ta Kasilda Iturizaren loretegi ta baratz ondo zaindua baiño ez daukazala, baiña nun aurkitu ur ur Bilbok dituan Pagasarri ta Artxanda lako zugazti ta landa aundirik!! Erletxen asi ta Enekuriraiño bizkarra, benetan ikusgarria kilometroak luze, bertatik agiri dira Bilbo Uria, txori-erri lautada anditsua, porturik aundienetakoa, itsaso zabala ta Bizkaiko mendi guztiak, Begoñako Amaren eliz eder ta inguru zoragarria Ibaizabal-Nerbion ibaia, zikintxoau, baiña aberatsa eta laster garbituten dabenean bere zubi ugariakaz ikustekoa, Etabar, etabar, milla bidar etabar.

* * *

Iñor etorten ba jatsue kanpotik Bilbo ikusi nai dabenik eroan orretatik, gero eskeiñi millaka diran jatetxe baten emon oi dan bazkari bat eta joango da bere errira esanaz: Bilbo lakorik iñon bere ez.

Gora Bilbo ta Euskalerrria! Bilboko erriari eskolan ez jako irakatsi erti gutxi baiño (orain geitxoago), Ikasi zuek zer daukagun eta ez beti kanpoko etxearen ogiari begira egon. Zenbat eta geiago ezagutu zuen erria, ainbat eta geiago maitatuko dozue.

GORA BILBO AUNDI SAKON
BIZKAIKO AUNDIÑA
LANGILLEA, ABEGIDUN
TXOKO EZ BARDIÑA
MAITE ZAITUT BIOTZETIK
MAITEGARRI ZARIENA
ARTU GAURTIK MAITASUNEZ
MOZU BEROENA.

ON KLAUDIOK

AZKEN-APARI MARGOTUA

Eleiza barri bat egin zan eta margolari ospetsu bateri aurreko orman margazki eder aundi bat margotzeko eskatu eutsoen.

Eta margolariak egin be bai: margazki zoragarria benetan, aurreko orma aundi guztia betekoa.

Erti-lan eder ori estalduta geratu zan errezel aundi baten ostean, eleizearen askunde-egunean errezela alboratu eta erritar guztiak ikusi egien.

* * *

Eldu zan erriarentzat egun pozgarria. Eleizan batu ziran Gotzain jauna, erriko agintariak eta gora-goko maillakoak, margolaria, erti-zale asko eta jentetza aundia.

Goizeko amaiketean izango zan errezel-kentze ori, Gotzain jaunak berbaldi eder baten ikustekoa zan margazki orren esan-naia adierazo ondoren.

* * *

Kendu eben errezela eta an agertu zan agertze-koa: Margazki aundia benetan baiña arrigarria: Kepa ta Juda alkarragaz burrukan, Jagoba ta Jon beste guztien aurka joka, Maria Magdalena oi zan baiño ikusgarriago, Jesus guztien arteko bakeak egin eziñik... eta zer ez!

* * *

Gotzain jaunak asarre aundiaz deitu eutson margolari ospetsuari kontuak eskatzeko eta esan eutson:

— Zer margotu dozu or eta zer esan gura dozu or agertzen diran gaizpidezko irudi orreikaz? Ori ete da Azken-Apari Santuaren adierazpena?

Eta margolariak, arrituta lez, erantzun eutson:

— Bizitasun aundiko margazkia egiteko eskatu eusten eta nik esana ondo be ondo bete dot, margazki eder ederra egiñaz.

Bart amarretan eleizatik etxeratu nintzanean nik bake-bakean itzi nebazan orduantxe aparia asteko. Beste guztiak gero jazo dira.

26.^a ERANTZUNA

1	Z	O	R	D	U	U	K	A	T	U				
2	A	U	R		U	R	B	I	L	N				M
3	D			N		A	R	E						E
4	I	Z	P	E		I	K	E	R	T	U			A
5	M			L		U		T		R				B
6	E			E	G	I	N	U	E	R			B	E
7	N	I	K		A			G		G	U			R
8	G			B	U	R	U	R	A	T	U	T	A	
9	A	B	E	R	E		R		N	I				S
10	B	Z			U	K	O	A			Z	U		T
11	E			I	K	A	S	I		I	K	A	R	A
12	K	A	L	D	A		C	Z	K	O	I			S
13	O			I	T	Z		U			N			U
14	I	A		Z		G	A	I	N		N	U	N	

Gorri

EZKER ESKUIRA

1. Enemigo. Lugar de jóvenes.
2. Sufijo verbal.
3. Brutalidad, tontería.
4. Lenguaje, estilo.
5. Próximo, cerca.
6. Adiós, saludo. Yo.
8. Amor al patriotismo.
10. Vago. Caso fortuito.
11. Sufijo intensivo. A, lugar.
12. Venida.
13. Vocal repetida. Tiempo.
14. Momento del suceso. Nosotros.
15. Allí. Cada semana.

GOITIK BERA

1. Conocido. Aquel mismo. Suf. privación.
2. Redil, estable.
4. Etcétera. Molino.
5. En adelante.

6. Nosotros.

8. (El) Renacimiento.
9. Tú.
11. Que no. Costa.
13. Acostarse. Comienzo, principio.
15. Mar. Deseo.

27.^a

1														
2				X		X								
3														
4				X										
5														
6	X													
7														
8														
9											X	X		
10														
11			X											
12														
13			X											
14														
15														

Gorri

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1.982-83 IKASTAROA

AMABOSTGARRENA

BIZKAIERAZ

LAU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK : GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA : 6.000 peseta.

IZENA EMOTEKO TOKIA : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2
BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

15.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 4 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS : LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS : MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO : 6.000 Ptas.

INSCRIPCIONES : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA